

**Deialdian soilik eskatzen da Ikertzaile nagusiaren CVA, ezta?**

Deialdian dio Ikertzaile nagusiaren CVA-a *aurkeztu beharreko* dokumentua dela, baina ebaluazioa egitean *Lantaldearen osaera eta esperientzia: (• Ikertzaileen Curriculumak, ...)* baloratuko d(ir)ela. Lehenengoa aurkeztea *requisito* da, besteak *merito*. Kasu guztietan CVak 4 orrialdekoak gehienez.

**Deialdian ez dago inon jasota zein den ejekuzio-epaia. Ikasturtearekin joango da? Ez dakit noizko ebazteko asmoa/helburua duzuen, baina 2026an barik agian 2027an hastea aurrakusten duzue?**

Ebazpena aurten egingo dugu, eta ejekuzioa 2027 urtarrilak 1etik aurrera izango zen.

**Ikerketa-taldean parte har dezaketenen artean 23bis artikuluko ikertzaileak ere badira?**

Art23bis ikertzaileak proiektuan sartu ahal dira, baldin eta aurrekusten bada haien kontratazioa behintzat urte betez mantenduko dela.

**Ikerketa-taldean soilik parte har dezakete sei ikertzailek? Mugatuta badago kopuru maximoa, ikertzaile nagusia gehi beste sei ala guztira sei dira? Eskaeran 6 leku agertzen dira baina sinaduretan INarena gehi beste seirena agertzen dira...**

Ikertzaile kopuruan muga eskaeren ebaluaziorako da bakarrik, 6 ikertzaileen CVak eta haien rola/ardurak proiektuan besterik ez direla ebaluatuko. Behin proiektua martxan jarrita, arazorik gabe gehitu ahalko dira ikertzaile gehiago proiektura, eta horren formalizazioa eskatu Ikerketa EOan betiko kanalen bitartez.

**Eta beste sei kide izan daitezke kanpo eragilearen aldetik? Kanpo eragileei dagokienez, bat baino gehiago badira, horietako kide desberdinek osatuko dute taldea, nahiz eta ez duten lankidetzan aritu behar halaberrez?**

Kopurua kanpoko eragileen kasuan berdin, gehienez sei aipatu ahalko dira eskaeran, nahiz eta gero gehiagok parte hartu. Eta antolakuntzaren inguruan, kasu bakoitzean antolaketa proiektuaren arabera izango da, ez dute zergaitik haien hartean lankidetzan egon behar, baina bai ikerketa taldearekin denak koordinatuta.

**Deialdi honetan aurkezteko nahitaezkoa da gure proiektua Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea deialdian finantzazioa jaso izana?**

Ez.

**Planteatzen al da denbora-mugarik aipatutako proiektuak garatzeko dataren edo ikerketa-lanak argitaratzeko dataren inguruan?**

Ez. Ezagutza hori ezartzeak gizartean duen eragina gaur egun neur daitekeen bitartean, ez da denbora-mugarik planteatzen.

**"Ez da denbora-mugarik planteatzen" esaten denean, etorkizuneko gizarte-eraginari buruz hitz egiten da?**

Ez, esan nahi du proiektuak/argitalpenak -orain neur daitekeen inpaktu soziala sortu duenak- urteak izan ditzakeela.

**Ebidentziak lortu nahi dira, ala ebidentziak lortzeko tresnak garatu nahi dira?**

Biak. EHUrentzat biak dira garrantzitsuak.

**Ikerketa edo argitalpen zehatz baten inpaktu sozialaren ebidentziak bilatu behar dira, ala ikerketa-talde baten inpaktua ikertu behar da?**

Ikerketa unitate txikiaren inpaktu soziala neurtu nahi da deialdi honekin, ez ikerketa talde baten traiektoria osoa. Kasu batzuetan argitalpen bakarra izan daiteke, beste batzuetan argitalpen multzo baten emaitza izango da neurtzen dena.

**Deialdi hau argitaratzen den egunean eginda dagoen inpaktu sozialeko**

**ebidentziak biltzeko finantzaketa eska daiteke?**

Ez. Informazio hori taldearen CVaren barruan eman beharko da, eta proposamenari puntuak emango dizkio.

**Ebidentziak gaur egun indarrean dagoen ikerketa-talde baten proiektu baten ezarpenari buruz bilatu behar dira?**

Ez nahitaez.

**Ebidentziak ikerketa-taldearen beraren proiektu baten ezarpenari buruz bilatu behar dira?**

Ez nahitaez.

**Zeri deitzen diogu inpaktu sozialaren ebidentziak?**

Gaiaren izaeraren eta aplikazio-eremuaren arabera izango da, baina mundu akademikotik haratago sortu diren aldaketez ari gara, gure gizartearen zati baten edo gizarte osoaren ongizateari egindako ekarpenaz. Aldaketa horiek kuantitatiboki zein teknika kualitatiboan bidez jaso ahal izango dira (testigantzak...). Kanpoko erakundeen inplikazioa funtsezkoa izango da ebidentzia horiek identifikatu eta jasotzeko.

**Ikerketa-talde aitortua izatea baldintza al da?**

Ez

**Deialdiak aukera ematen du jada pentsatuta dugun metodologia bat aplikatzeko edo metodologia bat garatzeko eta aplikatzeko?**

Bi aukerak dira posible

**Zertan datza agentearen inplikazioa? Informazioa soilik biltzen laguntzen?**

Proiektu bakoitzaren arabera izango da. Ebaluazio-batzordeak alderdi hori baloratuko du, bai kualitatiboki, bai kuantitatiboki.

**Stakeholderren mapa (interes-taldeak) lehenago izan beharko genuke eta proiektuaren zati gisa egin beharko litzateke?**

Baliteke proiektuan zehar interes-talde gehiago identifikatzea, eta horien ongizatean lagundu du EHU sortutako ezagutzak, baina, hasiera batean, proposamenak identifikatu beharko luke zer interes-talderen ongizateari buruzko ebidentziak jasoko diren.

**Zeri deitzen diogu ikerketa-taldea eta lantaldea deialdi honetan?**

Ikertzaile-taldea EHUko pertsonala da, eta lantaldea kanpoko erakundeko ikertzaile-taldea eta langileak dira .

**Zer formatutan entregatu behar da gutxieneko ikerketa-taldea osatzen duten hiru pertsonen CVA?**

Formatu laburtuan (gehienez 4 orrialde), CVA estiloa